

zumaiia

1. zenbakia • 2009ko otsaila

ZU

udalaldizkaria



Zumaiko Udala



Alondegia kulturaren bilgune

Alondegian kokatuko da Zumaiako Kultur Etxe berria; udal liburutegia ere bertara eramango da.

aurkibidea

2 Udal zerbitzuak: **Garbigunea**

3 Inkesta

4 Zer duzu esateko?

5 Denon herri kontuak

6 **Alondegia kulturaren bilgune**

10 Bizikleta zerbitzua

11 Euskaren ordenantza

12 Zazpi hirigintza proiektu

13 Alderdien iritzia

16 Agenda

Argitaratzailea: Zumaiaiko Udala
Egilea: Pentsa bulegoa
Argazkiak: Zumaiaiko Udala eta EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
Ale kopurua: 4.500 ale
L.G: SS-139-2009

Paper birziklatuan egina 

Udal zerbitzua: Garbigunea

Joxe Mari Korta Industrialdea • Tel. 943 86 04 41



Garbigunea herriaren kanpoaldean dagoen hondakinen biltegia da. Hauek ditu helburu nagusi: hondakinetan dauden materialak berreskuratzea gero birziklatzeko, hondakinak kontrolik gabe isurtzea saihestea eta zabortegi kontrolatuetan tratatu edo desagerrarazi behar diren hondakinak gutxitzea.

Hondakin hauek eraman daitezke Garbigunera: egurra, kartoia eta papera, obra hondakinak, etxeko tresna elektrikoak, beira, inausketa edo kimatze hondakinak, ontziak, pilak, lurra, koltxoiak, errautsa, landare olioak eta beste hainbat.

Doako zerbitzu hau Urola Kostako herritarrek, eraikuntzako gremio txikiek eta merkatariek erabil dezakete.

ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera: 8:30-13:30 eta 16:30-18:30

Larunbatetan: 10:00-12:30

Igande eta jaiegunetan: itxita

Abuztuan: 8:30-13:30

Debekatuta dago hondakinak kanpoan uztea

zertarako erabililiko zenuke mojaxarren komentua?



Jesus Agirrezabalaga

Kultur ekitaldietarako egokituko nuke nik *mojaxarren* komentua. Akustika eta soinu aldetik egokia da ekimen horietarako. Herriko koruak entseatzeko edo emanaldiak egiteko aproposa da komentuko elizako parte. Baita musika eskolarentzako ere. Baina horrez gain, antzerki emanaldietarako-eta egokitzea ere ez legoke gaizki. Eliza kultur ekitaldientzako aprobetxatuko nuke.



Cristina Cintero

Nik hotel bat jarriko nuke. Eraikina hotel gisa egokitu-ta, bi funtzio beteko lituzke: batetik, Zumaiaiko alde zaharrean bertan kokatuta egongo litzatekeen hotel erakargarri baten eskaintza egingo litzateke turistei, eta bestetik, herritarrei begira, bizitasun pixka bat ekarriko luke alde zaharra. Goizetan erosketak-eta egiten jendea ibiltzen da, baina arratsaldeetan nahiko hilda egoten da alde zaharra.



Imanol Sesma


Albergea egokitzea ondo ikusten dut. Santiago Bideko ibiltarientzako, eskola umeentzako zein gazteentzako egokia izango litzateke. Baina gero, kultur ekimenetarako erabiliko nuke gehienbat komentua. Aztertu egin beharko litzateke, Alondegiko proiektua, Torreberrikoa eta Usategikoa definitu ondoren, zein gabezia geratzen diren herrian kulturari begira. Kontzertuetarako, adibidez, ez dago aretorik Zumaian.



Itziar Olaizola

Eraikinaren inguruko eztabaida aparte utzita, komentuari inguruko lur-sailei erabilera emango nieke nik. Nekazaritza ekologikoaren inguruko ikastaroak eskaintzeko aproposa izango litzateke eremu hori. Gasteizen-eta egin dituzte antzerako ekimenak, eta emaitza oso onak izan ditu. Nekazaritza ekologikoaren inguruan, norbanakoentzako zein eskola umeentzako ikastaroak eskaintzea interresgarria izango litzateke.

udala



urte berriarekin ilusio berriak piztu ohi dira eta intentzio horrekin dator udal aldizkari berria ere. Herritarrengana zuzentzeko bidea izango da aldizkaria. Baina alderantzizko norabidea ere landu nahi du, herritarren hitza jasotzea, alegia. Aldizkariaren izenburuak ere horixe azpimarratzen du: Zumaia Zu; Zumaia zu zarelako. Gainera, webgunea ere berritzen ari gara. Pixkanaka Udalaren eta herritarren arteko komunikazioa gehiago sendotzea da gure asmoa.

nuevas ilusiones surgen con el nuevo año. La nueva revista municipal también viene con esa intención. Será un medio para dirigirse a los zumaiarras, pero también quiere recoger la voz del pueblo. El nombre de la revista hace hincapié justo en eso: Zumaia Zu; porque Zumaia lo eres tú. Además, estamos actualizando la página Web. Poco a poco, queremos reforzar aún más la comunicación entre el Ayuntamiento y los zumaiarras.

Zumaia zu zarelako

Zumaiaiko Udalak herritarren artean parte-hartzea sustatu eta, horrekin batera, herritarren iritziak jaso nahi ditu. Helburu horri erantzuteko jarri ditu Zumaiaiko hainbat puntutan ekarpenak jasotzeko buzoiak. Herritarrek euren iritziak, kexak, proposamenak edota iradokizunak Udalari jakinarazteko bidea izango dute, eta Udalak buzoi horiek erabiltzera animatu nahi ditu zumaiarrik.

Kale bateko norabidea aldatu egingo zenukeela, garraio publikoaren zerbitzu gehiago jarri beharko liratekeela, kale batean argi gehiago jarriko zenituzkeela, beste kalean espaloia egoera txarrean dagoela... Era guztietako proposamenak eta kexak jasotzeko tresnak izango dira buzoi horiek. Udalak horiek jaso eta aintzat hartu nahi ditu, herritarren behar eta eskariei erantzunez herria eraikitzeko. Azken batean, Zumaia zu zarelako, edo hobeto esanda, zuek guztiok osatzen duzuelako Zumaiaiko herria.

Herriko hainbat gunetan daude jarritako buzoiak. Lehendik, Zumaiaiko hiru auzoetan -Narruondon, Oikian eta Artadin- jarritako zeuden. Orain, buzoi berriak gehitu zaizkie lehenengoei. Berriak Zumaiaiko herrigunetan ipini dira: udaletxe-ko harreran, udal liburutegian, kiroldegian, eta turismo bulegoan. Parte hartzeko sare horrekin, herritarrek proposamenak egin edo iritziak emateko aukera handiagoa izango dute. Gainera, webgunea berria ere prestatzen ari da Udala eta hor ere herritarrek iritzia eman ahal izango dute. Laster izango da abian webgunea berritua ere.

Behin proposamen eta iritzi horiek jasota, herritarren eskariak aztertu eta ahalik eta irtenbide egokiena ematen saiatuko da Udala.



el Ayuntamiento de Zumaia ha colocado varios buzones en diversos puntos a lo largo del pueblo. Mediante esta iniciativa se quieren construir lazos de acercamiento entre el Ayuntamiento y los ciudadanos. Gracias a estos buzones, los zumaiarras podrán exponer sus quejas, propuestas u opiniones respecto a la gestión municipal. El Ayuntamiento, por su parte, quiere tomar en consideración todas las aportaciones y, por ello, anima a los zumaiarras a participar en la iniciativa.

Los buzones se hallan ya fijados y a la espera de aportaciones en los tres barrios de Zumaia: Oikia, Narrondo y en Artadi. Pero además de esos tres, el Ayuntamiento quiere extender la iniciativa al núcleo urbano. Así, se colocarán cuatro unidades más: uno en la recepción del ayuntamiento, otro en la biblioteca municipal, el tercero en la oficina de turismo y el último en el polideportivo. Además de la iniciativa de los buzones, el Ayuntamiento ofrecerá otra vía para la participación ciudadana en la nueva página web que pondrá en servicio próximamente.

aurrekontu parte-hartzaileak



denon herri kontuak denon artean erabakitzeko bideak abiatu dira Zumaian. Izan ere, Udalak 2009ko aurrekontuak modu parte-hartzailean lantzeko prozesua burutu berri du. Urte askoan herritarrek Udaleko Aurrekontuak zehazteko "aukera gutxi" izan dute eta, aurten, zumaia guztien parte-hartzea posible egiteko lehen urratsak ematea erabaki du Udalak. Horretarako, herritarren proposamenak jasotzeko hainbat saio antolatu ditu.

Azaroan hasi zen urte honetako aurrekontuetarako herritarren proposamenak biltzeko egitasmoa. Bi errondatan izan da herritarrekin harremana: lehenengo eta behin, auzoetako batzarrak egin ziren, eta gero, arlokako bilerak egin zituzten. Bilerez gain, emailaz, gutunez edo dei bidez ere jaso dituzte ekarpenak. Elhuyar Aholkularitzak gidatu du prozesu guztia, eta horko teknikariek emandako datuen arabera, 80 pertsona inguruk parte hartu du egitasmoan. 140 bat proposamen jaso dira denera.

Proposamen horietatik, besteak beste, honakoak lehenetsi zituzten herritarrek azkeneko batzordean:

- Ardantzabiden ur zikinak bideratzeko sare bat eraikitzea
- Inguruko aparkalekuetan lehentasuna auzotarrek izatea
- Narraundon argiztapena berritzea eta auzoko bi aldeak lotzeko sistemaren bat bilatzea
- Kantauri Plazan, Mendaro Marinela kalearen izkinako espaloia zabaltzea
- Tren-geltokitik kalera joateko semaforoa eta espaloia jartzea
- Familiei laguntzeko prebentzio programak eskaintzea
- Bonifazio Etxegaraiko aldapa irristakorra dela-eta arriskua ekiditeko egokitzeta
- Gaztetxea

Udalak etorkizunean Zumaiaiko aurrekontuak herritarrekin elkarlanean zehaztu nahi ditu. Horretarako, herritarren nahiak, iritziak eta interesak jaso eta aintzat hartu ditu. Udalak badaki aurtengoa "bide luze bateko lehen urratsa" baino ez dela. Izan ere, "zumaiaerrek prozesuan aktiboki" parte hartu dezaten lortu nahi du, etorkizunean ere udalerrian Udalak eta herri-

tarrek elkarrekin eta parte-hartzearen bidez lan egiteko ohitura eta kultura susta dezaten.

Otsail hasieran eztabaidatuko dituzte 2009rako aurrekontuak udalbatzarrean. Udalak zumaia.net-en emango du plenoan eztabaidatu ondorenean zehaztuko diren aurrekontuen inguruko informazioa.

el plan presupuestario de este año contará con la aportación de los ciudadanos de Zumaia. El Ayuntamiento ha llevado a cabo un proceso de participación ciudadana para la elaboración de los citados presupuestos. En total, ha contado con la participación de cerca de 80 personas. El número de propuestas ha ascendido a 140, y se ha optado por las que se consideran actualmente más necesarias.

En el próximo pleno municipal que se celebrará a principios de febrero, se debatirán los presupuestos para este año, tras lo cual, el Ayuntamiento informará sobre los presupuestos definidos para el 2009 en zumaia.net.

Alondegia, kultur dinamiken biltoki

Aspalditik, alondegia aleak eta zenbait jaki biltzeko eraikinari deitu izan zaio. Garaiak aldatu egin dira orduetik eta alondegi zaharrek behar berrietara egokitu beharra izan dute. Zumaiaiko Alondegiak kultur dinamikak bilduko ditu laster. Eraikin honetara pasatuko dute, baita ere, orain artean Forondan egon den udal liburutegia.

Antiguamente, los edificios denominados como alhóndigas tenían la función de almacenar granos u otros alimentos. Los tiempos han cambiado y las viejas alhóndigas han tenido que adaptarse a los nuevos tiempos. Próximamente, se acondicionará la Alhóndiga de Zumaia para acoger diversas actividades culturales. La biblioteca municipal también será trasladada a este edificio.



martxo hasieran ekingo diete eraikin zaharra eraberritzeko lanei, eta 18 hilabete iraungo dute. Eduardo Ramos Platon eta Maria Rosario Ortiz de Zarate arkitektoek idatzi dute proiektua, eta Udalak lehiaketa publiko bidez esleitu ditu eraikina eraberritzeko lanak. Gehienez, ia 3 milioiko aurrekontua izango dute. Aurreikuspenen arabera, 2010eko udazkenerako bukatuta egongo dira Alondegia eraberritzeko lanak.

Zumaiaiko Udalak eta Kultur Foroak definitu dute Alondegia edo Oxford izenez ere ezaguna den eraikinaren inguruko

proiektua. Aurreko legegintzalditik dator eraikin hau eraberritzeko proiektua. Zumaiaiko Udaleko kultura zinegotzi Pili Etxaberen esanetan, ordea, "proiektu hark ez zuen herriko kultur eragileen gehiengoaren iritziekin bat egiten".

2007an, berriz heldu zitzaion Alondegiko proiektuari, eta Kultur Forora luzatu zen eraikinari zer erabilera eman adosteko eztabaida. Kultur Foroan herriko kultur eragileek, Udaleko kultur teknikariak eta Udaleko Kultura batzordeko zinegotziek hartzen dute parte. Horiez gain, edozeinek hartu dezake parte; Kultur Foroa irekia da.

Los trabajos para acondicionar la vieja Alhondiga comenzarán en marzo, y se prevé que se prolonguen durante 18 meses. Según las previsiones, los trabajos de remodelación finalizarán en otoño de 2010.

La función de la nueva casa de cultura ha sido definida por el Ayuntamiento de Zumaia y por el denominado Foro de Cultura. El Foro está formado por diversos representantes del mundo cultural y social de Zumaia, junto con varios responsables del Ayuntamiento.



Pili Etxabe
Kultura zinegotzia

“Eraikina eraberritu egin behar dugunez, horrek bere mugak ere baditu, baina estetikoki ederra geratuko da, aldi berean. Gainera, baliabide teknologiko berriekin egokituko dugu eraikina. Solairu guztietan edukiko dute herritarrek interneterako sarbidea”.



Xebax Leiza
Txinparta euskara elkarteko kidea

“Emaizta ez da izan gure gustukoa baina parte hartu duten gainontzeko taldeek hori erabaki zuten eta guk hori positiboki baloratzen dugu. Ez da izan inposatutako proiektu bat”.



Inazio Tolosa
Antzerkigilea

“Foronda handitzen ari da kultur dinamikari dagokionean, baina irisgarritasun arazo nabarmenak ditu, jende edadetu eta elbarrientzako, batik bat. Horrez gain, aparteko garrantzia dauka kultura kalera eramateak, herria girotzen lagunduko baitu horrek”.



Txinparta euskara elkarteko Xebax Leiza da Kultur Foroko parte-hartzaileetako bat. Haren ustez, Alondegiko proiektua Kultur Foroaren bidez erabakitzekeo prozesua “positiboa” izan da. Leizak aitortu digu beraiek ez zirela liburutegia Alondegira eramatearen aldekoak, baina erabakia onartzen dutela: “Txinpartakoak ginen liburutegia zegoen tokian mantentzearen aldeko bakarrak. Gure ustez, ikastera joaten den jendearentzat egokiagoa da Foronda bezalako toki lasaia. Kultur Foroan, ordea, gehiengoak aldaketaren alde egin zuen. Emaizta ez da izan gure gustukoa, baina parte hartu duten gai-

nerako taldeek hori erabaki zuten, eta guk hori positiboki baloratzen dugu. Ez da izan inposatutako proiektu bat”.

Inazio Tolosa antzerkigile zumaiarrak ere parte hartu du Kultur Foroan. Tolosa izan zen liburutegia tokiz aldatzearen bultzatzaileetako bat, eta kultur dinamika Alondegi berrituan biltzea defendatu zuen: “Foronda handitzen ari da kultur dinamikari dagokionez, baina irisgarritasun arazo nabarmenak ditu, jende edadetu eta elbarrientzat, batik bat. Horrez gain, aparteko garrantzia dauka kultura kalera eramateak, herria girotzen lagunduko baitu horrek”.

Udal liburutegia, Alondegiaren ardatz

Kultur Foroak hartu zuen Zumaiaiko Udal liburutegia Alondegi eraberrituan kokatzeko erabakia, eta horixe izango da eraikinaren ardatz nagusia. "Liburutegiaren gaur egungo kokapena desegokia zela ondorioztatu genuen. Foronda ez zela tokirik egokiena liburutegirako, umeentzat batik bat. Orduan, Alondegi-ara ekartzea proposatu zen Kultur Foroan eta talde gehienei ondo iruditu zitzairen", dio Etxabe kultura zinegotziak.

Josu Egaña liburuzainak oraingo liburutegiaren erabiltzailearen profilaz galdetuta, honako hau erantzun du: "Publikoa anitza da, liburutegi publikoetan ohikoa denez; ikasleak, umeak, mailegu zerbitzuaren erabiltzaileak... Pertsona nagusiak, ordea, ez dira etortzen. Egoki kokatuta dauden liburutegi publikoetako erabiltzaile talde nabarmena da nagusiena eta uste dugu kokapen berriarekin iritsiko garela talde horretara zein beste berri batzuetara ere".

Miriam Romatet, kultur teknikariak, berri, esan du "agian ikasleek nahiago" izango dutela liburutegia zegoen lekuan uztea, baina aldaketari abantailak ikusten dizkio: "Ikastera joateko toki lasaiagoa dela eman dezake Forondak. Baina uste dut lasaitasuna eraikinaren esku dagoela eta ez hainbeste kokapenean. Forondan, egun, areto berean daude ikasten ari direnak, liburuak kontsultatzen dituztenak edo zerbait mailegatu nahi dutenak.

Alondegian, berriz, liburutegia egongo da, alde batetik, eta bestetik, azkeneko solairuan, ikasgela zabal bat izango dute ikasteko".

Liburutegia bigarren eta hirugarren solairuetan egokitu da. Denera, lau solairu izango ditu eraikinak. Lehenengo solairuan, artxibategia eta Kultura Saileko bulegoak egokitu dira. Kultur Bulegoak herrigunean bertan egotea ere "aberasgarria" izango dela uste du Romatetek, "han goian egon gabe", dio. Bigarren pisuan, haurrentzako eta gaztetxoentzako liburutegia kokatuko da. Hor, ipuin kontaketatara gela ere prestatuko da. Helduentzako liburutegiak hartuko du hirugarren solairua, eta teilatupea, laugarren solairua, alegia; ikasketarako gela zabal izango da. Teilatupea altxatu egingo da apur bat. Gorka Arregi Udaleko arkitektoaren arabera, 1,7 metro gehiago izango ditu eraikin berriak. "Horrela, erabilera egokiagoa emango zaio goian dagoen ikasgela horri. Horrez gain, kristalera izango du teilatupeak buelta guztian zehar, eta horrek egunez argi naturala sartzea ahalbidetuko du", dio Arregik.

"Erreferentziatzko" erakusketa gela

Baina, eremu horiez gain, Alondegiak erabilera anitzeko areto bat ere izango du, 136 metro koadrokoa. Beheko solairuan kokatuko dute, eta erakusketak, hitzaldiak eta bestelako saioak egiteko funtzioa izango du. Kultura zi-

negotziaren esanetan, "erreferentziatzko erakusketa gela izatea lortu nahi dugu". Zumaiaiek euren artelanak jendaurrean erakusteko bidea izango da aretoa, baina kanpotarren lanak ere erakutsiko dira, noizean behin. Alondegiaren inaugurazioa areto horretan "erakusketa emankor" bat egin ez abiatuko dela aitortu du Etxabek.

Proiektuarekin "gustura" geratu dela esan badu ere, Tolosa ez dator bat erakusketa gelari eman zaion funtzioarekin: "Beheko solairuko erabilera ez zen gehiegi eztabaidatu Kultur Foroan. Orokorrean hitz egin zen areto horri buruz, zehaztasunetan sartu gabe". Tolosarentzat "altxor txiki" bat izan da Alondegiko Oxford aretoa, eta "garrantzia berezia" ematen dio horregatik: "Oso areto bizia izan da, eta horregatik, gehiago eztabaidatzea merezi zuen".

Erabilera anitzeko aretoak, eraikin osoak bezala, bere mugak ere izango dituela azaldu du Etxabe kultura zinegotziak: "Eraikina eraberritu egin behar dugu, eta beraz, duen egitura mantenduta egokitu behar izan dugu Kultur Etxe berria. Horrek bere mugak baditu ere, estetikoki ederra ere bada.

Alondegi zaharrean baina aro berriei egokituta prestatuko dute Kultur Etxe berria. "Baliabide teknologiko berriekin egokituko dugu eraikina. Solairu guztietan edukiko dute herritarrek Internetarako sarbidea", dio Etxabek.

La biblioteca municipal será el eje principal del proyecto de la Alhóndiga. El Foro de Cultura decidió que la biblioteca debía de ser trasladada desde Foronda al edificio de la Alhóndiga.

Según el bibliotecario de Zumaia Josu Egaña, "Foronda tiene inconvenientes en cuanto a la accesibilidad, y trasladando la biblioteca al núcleo urbano, ampliaría su público".

En palabras de la técnica de

cultura Miriam Romatet, "puede que los estudiantes prefieran dejar la biblioteca donde está". En cambio, asegura que el nuevo edificio aportará ventajas en este tema: "en Foronda, la biblioteca y la zona de estudio están en el mismo espacio. Sin embargo, en el nuevo proyecto de la Alhóndiga se contempla acondicionar la biblioteca, por un lado, y adecuar el ático como una amplia zona de estudio".

Aparte de la biblioteca y la zona de

estudio, la planta baja acogerá una sala polivalente, enfatizando su uso como sala de exposiciones. "Queremos que esta sala sea de referencia" explicó la concejala de cultura Pili Etxabe.

La primera planta acogerá las oficinas de cultura, mientras que en la segunda se situará la biblioteca infantil. Además, el nuevo edificio contará con un ascensor de uso público que unirá la calle Erribera con la calle Mari.

Alondegia berriaren egitura honakoa izango da:

Beheko solairua:

Erabilera anitzeko aretoa. 136 metro karratu izango ditu eta erakusketak, hitzaldiak eta bestelako saioak egiteko erabiliko da. Aretoa biltegi bat ere izango du materiala gordetzeko.

1go solairua:

Kultur bulegoak: Kultura Saileko bulegoak kokatuko dira solairu honetan.

Artxibategia: Liburutegiaren osagarria izango da artxiboak gordetzeko eremu hau.

2. solairua:

Haurrentzako eta gaztetxoen-
tzako liburutegia egongo da bigarren solairuan.

3. solairua:

Helduentzako liburutegia kokatuko da.

4. solairua (teillatupea):

Ikasteko edo lan egiteko areto zabala izango da teillatupea.

Eraikinak bi sarrera:

Eraikinak bi sarrera edukiko ditu beheko solairuan. Batek, harrerara sartu ahal izango da. Igogailua ere bertan egongo da eta eraikina itxita egonda ere, igogailua erabiltzeko aukera izango da. Beste atetik, berriz, erabilera anitzeko aretora sartuko da. Horrela, erakusketa bat-edo dagoenean, eraikin osoa irekita mantendu beharrik ez da izango.



Igogailua Mari auzora

Alondegia eraberritzearekin batera, Erribera kaletik Mari kalera igotzeko igogailua egingo dute. Aurreko agintaldian abian jarritako proiektua da hori eta egungo udal gobernuak zenbait aldaketa egin dizkio egitasmo hari. Hala, igogailuak bi funtzio beteko ditu: alde batetik, eraikin barruko irisgarritasuna bermatuko du eta, bestetik, herriko beheko partea goikoarekin lotuko du. "Igogailua eraikinean integratuta egongo da. Hala ere, eraikina guztiz itxita egonda ere, independenteki igogailua erabilgarri edukiko dute herritarrek", azaldu du Udaleko arkitektoak.



Hurrengo Kultur Foroan Foronda eta Usategia hizpide

Liburutegia Alondegia berritura aldatuta, Forondan beste zenbait jardueretarako tokia geratuko da. Romatet kultur teknikariak azaldu duenez, "herriko beste zenbait talderentzako eta ikastarontzako egokituko da batik bat Foronda. Zumaiako rock taldeei, berriz, Usategian tokia egitea ari gara aztertzen. Horretarako aurretik egokitu egin beharko dugu Usategia".

Etorkizuneko proiektu horiek aztertze-ko, laster helduko zaio berriz ere Kultur Foroari. Romatetek dio "herritarrek 2009ko aurrekontuetan parte-hartzea bultzatu nahi zuen Udalak, eta horregatik egon da geldirik Foroa azken hilabete hauetan. Baina laster helduko zaio berriz ere".

Bizikletak maileguan herritarrentzako

Herriko lau kokagunetan egongo dira eta zerbitzua doakoa izango da.



Zumaiako Udalak, Emaus Gizarte Ekimenerako Sozietate Kooperatiboarekin elkarlanean, bizikletak maileguan hartzeko zerbitzua abian jarriko du laster. Ekimenarekin, neurri batean motordun ibilgailuak ordezkatu eta horrekin kutsadura arazoak gutxiagotzea lortu nahi du Udalak.

Denera, 30 bizikleta jarriko dira herritarren zerbitzura. Aurrez txartela ater beharko da, eta maileguan hartu ahal izango dira; ez da ezer ordaindu beharko trukean. Urte osoan egongo dira bizikletak erabilgarri, goizeko zortzietatik iluntzeko zortzietara. Lau kokagunetan jarriko dituzte: Tren geltokian, Amaiako plazan, Kiroldegiaren ondoan, eta Alai Auzategian. Bizikletak urkila bat izango dute, eta torloju baten bidez egongo dira giltzatuta. Zerbitzua erabiltzailea sistemako txartelaren bidez identifikatzen denean, torloju berehala askatuko da eta herritarrak bizikleta erabili ahal izango du bi orduz segidan, gehienez. Gero, lau kokagune horietako batean utzi beharko du berriz ere erabili duen bizikleta, lau kokagune horietako edozeinetan.

Kokagune horietan, bizikleta zerbitzua eskaintzeaz gain, zerbitzu honen inguruko informazioa eskainiko zaie herritarrei multimedia formatuan, eta turismo alorreko edo herriko zenbait konturen berri ere emango da.

Horretaz aparte, ekimen honen bidez, sozialki baztertuta edo bazterketa arriskuan dauden herriko langabeei lana eskainiko zaie. Gizarte Zerbitzuetatik hiru langile kontratatuko dituzte zerbitzuaz arduratzeko.

Jendearen bizikletetarako aparkaleku gehiago

Herrian motordun ibilgailuak ordezkatu eta bizikletaren erabilera sustatzeari begira, bizikleten mailegua ez da izango bultzatuko den ekimen bakarra. Bizikletetarako aparkaleku gehiago jarriko ditu Udalak herrian zehar.

61 egitura ezarriko dituzte, bakoitzean lau bizikleta utzi ahal izango dira; denera, bizikletak uzteko 244 toki egokitu dira. Herriko hainbat eremutan egokitu dituzte aparkalekuak: Puntanoeta auzoan, Izaga eta Arranaitzen, Aizkorri kalean, Julene ikastetxearen atzealdean, Gernika parkean, Zuloaga plazan, Jadarreko zubiaren ondoan, San Jose kalean, udaletxe aurrean, Amaiako plazan, Itzurun hondartzan, Arrangoletan, Parolbidearen hasieran eta Santiagoko hondartzan. Aurrerago, industriaguneetan ere jartzeko asmoa azaldu dute Udaletik.

Udaletxeko brigada hasi da aparkalekuen egiturak ipintzeko eremuak prestatzen.

el Ayuntamiento promoverá un servicio de préstamo de bicicletas automatizado. En total, se instalarán 30 bicicletas que estarán al servicio de la ciudadanía. La iniciativa tiene como objetivo sustituir a los vehículos de motor, ayudando con ello a disminuir la contaminación.

El servicio de bicicletas estará en funcionamiento durante todo el año, y las bicicletas estarán disponibles a partir de las ocho de la mañana hasta las ocho de la tarde. Aunque no se tendrá que pagar nada por su uso, los interesados tendrán que hacer la petición de la tarjeta de usuario para poder alquilar las bicicletas.

Los cuatro puntos de alquiler, junto con sus respectivas columnas informáticas, estarán situados en la estación del tren, en la plaza Amaia, al lado del polideportivo, y el último, en la zona de Alai.

Aparte de esta iniciativa, y continuando con el objetivo de sustituir a los vehículos de motor en la localidad, el Ayuntamiento también ampliará el conjunto de soportes para aparcar las bicicletas de uso propio. En total, colocará 61 nuevas estructuras a lo largo del municipio y habrá sitio para 244 bicicletas.

Euskara lehentasun

Euskara normalizatzeko ordenantza berria onartu du Udalak



Zumaiako Udalak euskara normalizatzeko ordenantza berria du. Aho batez onartu zen araudia joan den azaroan burututako udalbatzan. Ordenantza honen helburua da, Zumaiako Udalean ez ezik, udalerrian ere euskararen normalizazioa bermatuko duten ondorio juridikoak garatzea, kontuan hartuta zumaiarren %80k baino gehiagok euskaraz badakiela.

Lehenago ere bazen euskararen aldeko beste ordenantza bat indarrean, 90eko hamarkada hasieran onartu zen hura. Zaharkituta geratu da, ordea, lehenengo araudia, eta ez zien egungo beharrei erantzuten. Horregatik atera du orain Udalak ordenantza berria.

Ordenantzak hainbat betekizun eskatzen dizkio Udalari. Hala nola, Udalarekin harremana euskara hutsean izan nahi duten herritarrei begira, hori errazteko neurriak hartu eta bitartekoak jarriko ditu Udalak. Ildo beretik, euskara ofiziala den eremuan dauden beste Administrazio

Publikoei nahiz erakunde ofizialei zuzendutako dokumentazioa euskaraz edo ele bietan, euskara lehenetsita, bidaliko die Zumaiako Udalak. Beste norabidean datorren dokumentazioa ere, euskaraz iritsi dadin eskatuko du Udalak.

Garai berrietara egokituta, ordenantzaren helburu nagusia izango da, Zumaiako udalerriko eremu guztietan, herritar orok euskara erabiltzeko duen eskubidea sustatu eta bermatzea.

Zumaia dispone de nueva ordenanza del euskera desde principios de los años 90. El reglamento fue aprobado unánimemente en el pleno municipal del pasado mes de diciembre y pretende desarrollar el ámbito jurídico que asegure la normalización del euskera tanto en el Ayuntamiento como en el municipio. El objetivo principal será garantizar y promover el derecho de los ciudadanos a utilizar el euskera en todos los ámbitos.

motxian

Zubi mugikorra egiteko 23 proposamen

Urtarrilaren 21a izan zen Zumaiako kirol-portua eta Txomin Agirre kaia lotuko dituen zubi mugikorra egiteko lehiaketara proposamenak bidaltzeko azkeneko eguna. Udalak, denera, 23 proposamen jaso ditu horren harira. Batzuk atzeritik iritsi dira. Udaleko Hirigintza Sailekoak lan horiek aztertzen ari dira orain, banan-bana.

Jasotako proposamenekin erakusketa bat antolatzeko asmotan da Udala. Otsail bukaeran izango da, Alondegian. Aurreikuspen arabera, otsailaren 28etik martxoaren 8ra izango da baina datak oraindik zehaztu gabe daude. Erakusketan, aurkeztutako lanak ikusteaz gain, herritarrek iritzia ere eman ahalgo dute. Gero, herritarren boto gehien jasotzen duen lanak aparteko saria izango du. Sari horrez gain, honakoak jasoko dituzte lehenengo hiru lan onenek: lanik hoberenaren egileak 5.000 euro jasoko ditu; bigarrenak 3.000 eta hirugarrenak 2.000.

Behin lehiaketako irabazlea aukeratu, proiektua Eusko Jaurlaritzako Portuetako Zuzendaritzari aurkeztu beharko zaio, zubia egitea haien eskumena baita.

Se han presentado 23 proyectos para construir el puente móvil que unirá el puerto deportivo de Zumaia con el muelle Txomin Agirre. El Ayuntamiento pretende realizar una exposición con todos los proyectos presentados a finales de febrero, en la Sala Oxford de la Alhóndiga.

Zumaiako Udalak zazpi proiektu berri bultzatuko ditu

Zumaiako Udalak ia bi milioi euro eskatuko ditu Espainiako Gobernuak krisiari aurre egiteko proposatutako proiektuetarako. Denera, zazpi proiektu bultzatuko ditu Udalak, guztiak obra publikoari lotuta eta herriko hainbat eremutara egokituta. Hauek izango dira Zumaiako Udalak aurkeztuko dituen proiektuak eta horiek burutzeko beharko diren aurrekontuak:

1- Aita Mariko aparkalekua Osasun Zentroaren atzealdean (ambulatorio inguruko urbanizazio lanen bigarren fasea izango litzateke). 161.638,85 euro.

2- Basadi kaleko ordenazioa: bidegorri berria (ambulatorio inguruko urbanizazio lanen hirugarren fasea izango litzateke). 170.206,65 euro.

3- Itsas kiroltako lokala egokitzeko obra. 192.000 euro.

4- Ur hornidura berria Oikia auzora eta, horren barruan, Oikiako industria-gunera. 360.000 euro.

5- Artadiko ur-depositua. 386.500 euro.

6- Aita-Mari auzoan 40 auto uzteko aparkaleku berria. 180.000 euro.

7- Julene ikastetxeko patioan estalpe berria. 248.000 euro.

Zumaiako Udalak proiektu horien inguruko dokumentazioa bidali dio Espainiako Estatuako Administrazio Publikoetako Ministerioari. Orain, akatsak zuzentzeko denbora tarte bat egongo da eta otsailaren 17an emanngo ditu jakitera Ministerioak erabakiak. Otsailaren 9an aurkeztuko dira Batzordean, eta otsail bukaeran argitaratuko dira eskaintzak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Martxoaren 13ra bitartean esleituko dira obrak eta obra hasteko dokumentu ofizial guztiak eskuetan apirilaren 13a baino lehen izango dira.

Udaletik jakinarazi denez, "orain aurkeztu dituzten proiektuak Zumaiako herriak dituen beharrei erantzuteko lehentasun gisa ezarriak dira, eta beraz, egin egin behar dira, laguntza honekin nahiz Udalaren beraren finantziazioen bidez".

el Ayuntamiento de Zumaia solicitará casi dos millones de euros para las ayudas que el Gobierno de España ofrecerá para afrontar la crisis. En total, el Ayuntamiento promoverá siete proyectos relacionados a las obras públicas y acondicionadas para diferentes puntos de la ciudad:

1- Aparcamiento en Aita Mari, en la parte trasera del ambulatorio. 161.638,85 euros.

2- Ordenación de la calle Basadi. 170.206,65 euros.

3- Trabajos para acondicionar el local de surf. 192.000 euros.

4- Nuevo sistema de abastecimien-

to de agua para el barrio de Oikia. 360.000 euros.

5- Depósito de agua en el barrio de Artadi. 386.500 euros.

6- Nueva área de aparcamiento en Aita-Mari con capacidad para 40 coches. 180.000 euros.

7- Nuevo establo para cubrir el patio de la escuela Julene. 248.000 euros.

El Ministerio de Administraciones Públicas del Gobierno español dará a conocer las decisiones el 17 de febrero. Las obras se adjudicarán antes del 13 de marzo y la tirada de cuerdas o todos los documentos oficiales para comenzar la obra estarán listos antes del 13 de abril.



1- Aita-Mariko aparkalekua



2- Basadi kalea



3- Itsas kirolentzako lokala



4- Oikia auzoa



5- Artadiko ur-depositoa



6- Aita-Mari auzoa



7- Julene ikastetxeko estalpea



por fin revista municipal!!!

Tras año y medio desde las elecciones municipales, por fin!! el equipo de gobierno EA-ANV, ha conseguido publicar el primer número de la nueva revista municipal. Desde EAJ-PNV estamos expectantes a los resultados ya que en legislaturas anteriores tuvimos que sufrir críticas continuas sobre el tratamiento que en Paola (revista que publicaba el Ayuntamiento hasta la presente legislatura) se daba a los temas municipales. Sabemos que la revista Paola tenía una gran aceptación por parte de los zumaiarras y eso nos hizo trabajar con ilusión, a pesar que en los últimos años los partidos que conforman el actual gobierno municipal EA-ANV no tomaban parte en él y de hecho no tardaron en eliminarla cuando se alzaron con el poder.

El Ayuntamiento de Zumaia estrena nueva empresa para que le lleve la asesoría de comunicación, se le acaba de adjudicar por 48.720 euros el contrato anual para, suponemos, la revista, página web y redactar las notas de prensa que el Gobierno Municipal de EA-ANV quiere que se publiquen en los medios. También en esta materia se incrementa el gasto corriente (aproximadamente 20.000 euros), entre otras cosas por que ahora hay una persona contratada de lunes a viernes para tratar exclusivamente de los temas de comunicación y esto tiene un coste elevado que el Ayuntamiento va a tener que soportar.

La adjudicataria del Plan de Comunicación ha sido "Hitzeko E.M.U.", una empresa que ha trabajado desde comienzos de esta legislatura para el Ayuntamiento de Azpeitia, y que fue creada por Uztarría (Azpeitiako herri aldizkaria).

En la Mesa de Contratación han tenido voto los representantes de Zumaia del Diario Vasco y Noticias de Gipuzkoa, un representante de Hitza y un representante de Baleike .

Uztarría y Baleike son miembros de "Urola-Kostako Hedabideak S.L.", empresa que publica el Hitza de Urola-Kosta.

Además, el Ayuntamiento de Zumaia subvenciona con 27.456 euros anuales a Hitza y con 20.280 euros anuales al Baleike.

En los tiempos de Aznar se decía que el PP mandaba en los medios de comunicación. Nos da la impresión de que, a escala, ANV de Zumaia con su socio de gobierno, tiene el control de los medios escritos que se leen en el municipio. Pero, todo hay que decirlo, a estas alturas, tampoco nos sorprende. De todos modos siempre nos quedará ZUMAIA ZUREKIN.



ezker abertzalea

Iehenik eta behin, ongi etorria eman nahi diogu Zumaia zuri. Udalaren eginkizunetako bat bada herritarrek informatzea eta komunikatzeko bideak ezartzea, eta uste dugu horretarako tresna baliagarria izan daitekeela. Oraindik gogoan daukagu Zumaiako Paola hura, eta harekin bezala, zorrotz jokatu dugu honekin ere gure eskakizunetan: udal-aldizkariak ahalik eta informazio inpartzial eta objektiboena eman dezala, ez dadila izan batzuek propaganda egiteko bidea, iritzi guztiek (aldekoek eta aurkakoek) izan dezatela lekua, alderdien komenientzia edo interesen ginetik egon dadila...

Bestalde, Udalean gobernu berria eratu genuenetik, gure helburuetako bat izan da Udaleko ateak zumaiarrei zabaltzea eta herritarrek parte hartzeko bideak ezartzea, lehen hain ohikoa eta nabarmena zen nagusikeria-jarrera ahaztuta. Pixkanaka-pixkanaka, gauzak aldatzen ari gara, eta horren adibide da 2009ko udal-aurrekontuak lantzeko parte hartzeko prozesua, behin bidea zabalduta, etorkizunean indartzea eta sakontzea espero duguna. Horrela, auzoka eta arloka egingdako bileren bidez, zumaiarren hainbat proposamen (ia 150) aberasgarri jaso ditugu. Ezbairik gabe, horiek guzti-guztiak dira kontuan hartzekoak: batzuk zuzenean jaso ditugu 2009ko aurrekontuetan eta beste batzuk oso kontuan hartuko ditugu hurrengo urteetan gauzatzeko. Eskerrik asko zuzenean edo zeharka parte hartu duzuen guztioi.

Azkenik, ezin dugu ahaztu martxoaren 1eko zita, hau da, hauteskundeena. Hautesle-elkarte berri bat sortu da, Demokrazia 3 Milioi izenekoa, debeku eta sasi guztien ginetik herritar guztiei ahotsa eman eta nahi dutena bozkatzeko eskubidea bermatu nahi diena. Beste hainbat herritan bezala, aldeko sinadurak bildu genituen Zumaian ere, hain zuzen ere, guztira 312. Hauteskunde hauetan ez dago jokoan nor eseriko den Ajuria Eneako poltronan, baizik eta zenbateraino hurbildu edo urrundu den herri hau eskenatoki demokratiko berri batetik. Euskal Herriak eskubidea du libre eta demokratikoki bere etorkizuna erabakitzeke, eta horixe da gatazka konpontzeko bidea. Hauteskunde hauetan ere Ezker Abertzalea presente egongo da, herri hau aurrera begira jartzeko.



aldizkari hau Udalean bizi dugun egoeraren is-pilu dela esan genezake. Aldizkari berri bat, egoera berri batean. Udal barnean aurrera eraman dugun aldaketa politikoaren erakusgarri da aldizkaria. Gardentasuna eta parte-hartzea helburu, Udalaren berriak Zumaian ikuspuntu guztietatik ikusteko modua izango da.

Gogor dihardugu lanean hauteskundera esandako mezuak bete nahian. Zumaia Lantzenen kudeaketa abian jarri dugu, eta horrek, beste gauza askoren artean, aurrezpen ekonomiko garbia ekarriko du. Auzoetan inbertsioak handitu ditugu: Jadarre berriz urbanizatzea, Narrauondorako pasabidearen proiektua eta aurten exekuzioa, Oikiako ur-saneamenduaren hornidura berria, Artadiko ur-biltegia eta komun eta aisialdirako gune baten proiektua. Kultur foroa eratu dugu parte-hartzea sustatuz eta Alondegiko proiektua gauzatzeko bideak ezarri ere bai. Haurtzaindegi berri bat eraiki dugu. Zubi mugikorraren ideien lehiaketa jarri genuen abian. Udaleko pertsonala, berriz, gehitu behar izan dugu herriak duen eskaerari erantzun egokia emateko asmoz. Aurrekontuak herritarrengandik hurbilago jarri nahi izan ditugu, parte-hartzea sustatu eta herritarren ekarpenak zuzenean jasota. Mojaxarren komenturako ideiak jasotzeko epea ireki dugu. Emakume eta gizonen arteko berdintasun diagnosis martxan jarri dugu.

Zoritxarrez, ordea, ez da dena ona. Krisiak eragin zuzena du Udaleko jardueratan ere. Esaterako, hitzarmen urbanistiko baten bidez, sustatzaile jakin batek egin behar zuen frontoi luzea atzeratzen ari da, diruak ematen ez duela eta. Nahiz eta erraza ez izan, ahalginak egiten ari gara hori gauzatu dadin. Foru Aldunditik zein obra-baimenetatik jasotzen dugun diru iturrien murrizketa nabarmena ere badaukagu, horrek aurrekontuetan duen eragin zuzenarekin.

Zalantzarik ez izan, buru-belarri jardungo dugula arazo hauek guztiak konpondu nahian.



2009. urteko aurrekontuak prestatzen ari garen unean iritsi zaigu Zumaia Zu-ren lehen zenbakia. Beraz, aurrekontu hauei emango diegun proposamenei buruz idaztea erabaki dugu.

Aurten ere, gure ustez, aurrekontu hauetan aldatu behar den gairik garrantzitsuenak Zumaia Lantzen da. Izan ere, aurrekontuen arabera, Zumaia Lantzen kudeatzen duen enpresa pribatuak 2.000.000 euro baino gehiagoko dirutza irabaziko du, hau da, Udalaren aurrekontu orokorraren %10-a gutxi gorabehera. Esan, asko harritu gaituela udal gobernua berriz Zumaia Lantzenen kudeaketa azpikontratatu nahi izatea, pertsonal gastua %40an igo dutenean kudeaketa lan hau bere gain hartu beharko lukeen hirigintza saila asko indartuz.

En coherencia con nuestro programa reivindicamos la disolución de Zumaia Lantzen. Esta sociedad urbanística es gestionada por una empresa privada (aunque sea después de un concurso público). Apostamos por la gestión directa sin necesidad de una empresa intermediaria, esto es posible y a nuestro entender deseable. No éramos contrarios a Zumaia Lantzen porque estuviera el PNV al frente de ella. Ha pasado un tiempo prudencial como para que el equipo de gobierno se plantee la gestión directa por medio de empleados públicos. Después de un proceso muy complicado, contamos con un nuevo y eficaz equipo urbanístico, que es visible por todos y creemos que éste tiene que ser el camino a seguir.

Hemos presentado también unas propuestas al presupuesto, como la mejora de la accesibilidad del puente peatonal entre el muelle y parque de Gernika, asociación en UEMA (Udaleri Euskaldunen Mankomunitatea), creación de un patronato de deportes y aumento de las ayudas al mismo, creación de un patronato para el control y desarrollo del biotopo, etc.

Egungo egoerak eraginkor izatera behartzen gaitu eta Mankomunitatearen eta Udalaren arteko elkarlana bultzatuko dugu enplegua sustapenerako.



de nuevo, podemos dirigirnos a todos los vecinos y vecinas de Zumaia, aunque para ello tengamos que haber pasado 2 años. Por desgracia, este retraso también se refleja en los proyectos que ya estaban aprobados y presupuestados; unos pendientes sin más, otros cambiando el proyecto con el consiguiente coste económico, y otros terminados pero sin que se sepa todavía a qué se van a dedicar, caso de Torre Berrí, ¿va a ser ludoteca o va a ser gaztetxe?. Con lo segundo, no estamos de acuerdo para nada, no podemos rehabilitar un edificio casi de forma artesanal con un coste muy importante para todos y entregarlo para una actividad sin control municipal.

Este retraso también tiene que ver sobre la falta de definición política sobre Zumaia Lantzen S.A. que a día de hoy no tenemos claro que es lo que va a pasar, si sigue con la actividad o no, esta falta de programación en la gestión municipal, bien por debilidad política, bien por falta de experiencia, hace que las decisiones de Comisión de Gobierno se alarguen de manera lamentable, hasta el punto de que la ejecución presupuestaria del 2007 fue baja, la del año 2008 no llegará al 30% en el capítulo de inversiones.

Todo esto también se ve reflejado en los plenos, sobre todo en esta última etapa donde hemos llegado a tener 2 plenos seguidos dedicados a mociones políticas, que nada tenían que ver con la gestión municipal. Para terminar con este repaso de los casi 2 años de falta de programa de Gobierno estamos esperando la terminación de Odieta y el nuevo frontón incluidos estos proyectos en el programa 2005-2015.

Gracias al programa del Gobierno de Rodríguez Zapatero vamos a contar con financiación de más de 1 millón de euros para los 7 proyectos presentados dirigidos a mejorar los barrios, dotándoles de mejoras e infraestructuras y servicios, no así del Gobierno Vasco o Diputación que nos recortan la financiación cuando más se necesita. Jadarre y Narrondo se verán beneficiados.

Esperamos por ello el proyecto final de presupuestos para 2009 sobre todo después del proceso de participación ciudadana o Presupuestos Participativos deseando que sea un año de gestión real y positiva para Zumaia.

Azaroaren 27ko udalbatzarraren osoko bilkura

1. Iraileko eta urriko bilkuren akta onartzea

Udalbatzako kideek, aho batez, eta inolako aldaketarik gabe, irailaren 25ean eta urriaren 6an egindako osoko bilkuren akta onartu zuten.

2. Udaleko 8. kreditu aldaketako onarpena.

Anbulatorio inguruko urbanizazioa egiteko, batetik, eta itsasoko kirol jarduerentzako lokala erosteko, bestetik, kreditu aldaketa onartu zen. Aldeko 6 boto jaso zituen (2 EA, 3 ezker abertzalea, 1 EB/Berdeak-Aralar), 2 boto kontra (PNV) eta bat abstenitu (PSEE-EE) egin zen.

3. Zumaia Udaleko langileen lan baldintzen hitzarmena onartzea.

Udaleko langileen lan baldintzak hobetzeko, udal gobernua Eudel-en Udaltz hitz programari hobekuntza dokumentu bat txertatzea proposatu zuen ELA eta LAB sindikatuekin hitz egin ostean. 6 boto alde jaso zituen (2 EA, 3 ezker abertzalea, 1 EB/Berdeak-Aralar), bat kontra (PSE-EE) eta bi abstenitu (PNV) egin ziren.

4. Udaltzainen lanpostuen zerrendetan aldaketa

Udaltzainetarako lanpostuetarako B motako gidabaimenaren inguruko baldintza txertatzea Lan-

postuen Zerrendan (RPT). Aho batez onartu zen.

5. Euskara ordenantza berria onartzea

Zumaiak badu 1990etik euskararen udal ordenantza bat indarrean. Legedi hori zaharkituta geratu da eta ordenantza berria aho batez onartu zuten udalbatzan.

6. Euskararen erabilerara plana onartzea

2003an jarri zen abian plana eta 2008an, planaren lehenengo fasea bukaerara iritsi zen. Orain, plan horren jarraipena diseinatu dute. Aho batez onartu zen hori ere.

Urtarrilaren 15eko Gobernu Batzordearen ezohiko bilkura

1. San Telmoko errebaletan egin nahi den etxebizitzaren inguruko azterketa onartzea

Gobernu Batzordeak aho batez onartu zuen San Telmoko errebaletan egin nahi den etxebizitzaren inguruan garatutako azterketa zehatza.

2. Zazpi proiektu Espainiako Estatuak eskaintako dirulaguntzetan sartzeko eskariaren onarpena

Aho batez onartu zuen Gobernu Batzordeak Espainiako Estatuak krisiari aurre egiteko eskaintako dirulaguntzetarako eskaria. Zazpi proiektu zehatzen eskaria egin da.

agenda

otsaila febrero / martxoa marzo



Deialdiak

- SANTELMOAK: Bilera irekia: otsailaren 13an, ostirala, 19:00etan udaletxean.
- MENDI ASTEA 2008: Martxoan, Forondan, Mendiko ikus-entzunezkoak (ikusi egitaraua)
- Herriko dendarien OUT LET AZOKA, otsailaren 7an eta 8an.

Erakusketak:

Otsailaren 7tik 15era, Alondegia aretoan, BEGOÑA EGUIGUREN-en erakusketa.

Irteerak:

Turismo bulegoak antolatuta (943-143396)

- Txangoa: martxoaren 14an izango da. Urdaibai-Bermeo.
- Irteerak: urte guztiko txangoetan izena eman nahi dutenentzat izena emateko datak: martxoaren 15etik 28ra.
- Martxoak 1, 15, 20 eta 29: Txalupa Zumaia-Deba- Zumaia (11:30-12:45)
- Martxoak 7, 14 eta 21: Geologikoa + txalupa (10:00-13:30)
- Martxoak 8: Trekkinga Deba-Zumaia (9:00-16:00)
- Martxoak 20: Zuloaga- kulturala (16:30-19:15)
- Martxoak 28: Rasa (10:00-14:00)

Ikastaroak

Ikasturtean zehar matrikula zabalik: Informazioa 943-861056

- PINTURA TAILERRA: astelehenetik ostegunera.
- YOGA: astearte eta ostegunetan 18:30ean
- HAUR ANTZERKIA: Ostegunetan 17:30ean.
- KZ Gunea: ikastaro eta mintegiak: Firma elektronikoa, Etxe bila, IT txartela,.. 943-862866
- KUTXA GELAK (902 540040): Tai chi chuan I, Tai chi chuan II, Golfa ezagutzen, Bainika lanak eta sukaldaritza onttoekin.

Otsaila / Febrero

Osteguna, 5 Jueves

19:00etan Foronda kultur etxean, Julene Azpeitia Ipuin Lehiaketaren sari banaketa eta Ander Lipusen ekitaldia: "Hala mintzatu zen Zappatrusta"

Entrega de premios del concurso de cuentos Julene Azpeitia.

Osteguna, 12 Jueves

22:15ean zine foruma: "El tren de las 3:10"
Cine forum: El tren de las 3,10.

Ostirala, 13 Viernes

22:00etan Aita Mari aretoan, antzerkia: Le Petit Theatre de Pain taldearen "Juglarea, Puta eta eroa".

Teatro en Aita Mari: Juglarea puta eta eroa.

Otsailaren 20tik 23ra

INAUTERIAK – Ikusi egitaraua
Carnavales – consulte el programa.

Astelehena, 23 Lunes

15:00etan eta 17:00etan, Pirritx eta Porrotx pailazoan saioa "Piratak"

Actuación de los payasos Pirritx eta Porrotx.

Osteguna, 26 Jueves

22:15ean zine foruma: "Caos calmo"
Cine forum: Caos calmo.

Igandea, 28 Domingo

Zumaia XXV. Herri Lasterketa, 16:00etatik-16:45era haurrak. 17:00etan helduak.
Cros popular de Zumaia.

Martxoa / Marzo

Ostirala, 6 Viernes

22:00etan, Emakumearen eguna dela eta, antzerkia: "La edad de la ciruela"
Teatro- La edad de la ciruela.

Larunbata, 7 Sabado

19:00etan, Komentuan, emakumearen eguna dela-eta kontzertua.
Concierto en conmemoración del día de la mujer.

Osteguna, 12 Jueves

22:15ean, zine foruma: "Hace mucho que te quiero"
Cine forum- Hace mucho que te quiero.

Ostirala, 13 Viernes

22:00etan, Aita Mari aretoan, kantaldia : Maddi Oihenart
Recital de canto de Maddi Oihenart.

Larunbata, 14 Sabado

"ZUHAITZ EGUNA" (Ikusi egitaraua)
Día del árbol – consulte el programa.

Igandea, 15 Domingo

Egurdian, Komentuan Emakumearen eguna dela eta, kontzertua.
Concierto en conmemoración del día de la mujer.

Osteguna, 26 Jueves

22:15ean zine foruma: "La boda de Rachel"
Cine forum- La boda de Rachel.

Igandea, 29 Domingo

12:00etan haur antzerkia: La Baldufa,
"Baserriko saltsa"
Teatro infantil, Baserriko saltsa.

